



Joanot Martorell kalea, 25. lokala 1  
08014 Bartzelona  
Tel. +34 93 331 73 66  
Faxa +34 93 331 42 20  
Mugikorra / SMS +34 678 71 26 19  
www.fesoce.org  
fesoce@fesoce.org

Itsu-gortasuna pairatzen duten pertsonen arazo nagusiak informaziorako sarbide eza eta autonomia pertsonala dira. Zailtasun hauek ahal den neurrian egokitzeko beharrezkoa da profesional zehatz batzuek, "bitartekariak itsu-gortasunean", itsu-gortasuna duten guztiakin parte hartzea jarduera eta programa guztietan eta esparru guztietan (Eskolan, Zentruan, Egoitzan, Lanean, Aisialdian, Etxean...). Profesional honek gainontzeko sartutako profesionalen, zein senideen, zein erlazionatutako beste zaintzaile batzuen ezagutzak sendotzen lagundu behar du. Hau dela eta, FESOCE-k "Bitartekariak itsu-gortasunean" laneratu nahi ditu "Asitente pertsonal" itsu-gortasuna duten pertsona guztientzat.

Lagunduiguzu ahal dena egiten, jarri harremanean "Itsugortasunerako Baliabideen Zentrua" rekin. Sartu gure web-ean eta jarraitu gure jarraibideak.

-ren laguntzaz.

© FESOCE, 2009



## Gor-itsutasuna antzemateko gida

Pertsonak gor-itsutat joko dira horrek ikusmen- eta entzumen-urritasunaren nahasketak komunikatu, informazioa eskuratu eta mugitzeko arazoak eragiten badizkie. Izatez, ikaskuntza-desgaitasunak, urritasun anitz edo adinarekin zerikusia duten arazoak dituzten pertsona ugarik ere gor-itsutasuna jasan dezakete.

Espezialistak ez direnek gor-itsutasuna antzemateko laguntza soila deskribatzaileen erabilera izango da, hots, bata sortzetiko (jaiotzetikoa) gor-itsutasuna duten pertsonen kasuan, eta bestea gor-itsutasun eskuratua dutenen kasuan.

Informazio gehiago jaso eta kasuak ezagutu nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan Federazioko Gor-itsutasunerako Baliabideen Zentroarekin.

**FESOCE, Gor-itsutasuna duten pertsonentzako etorkizuna eraikitzen.**



Espanian, 18.000 gor-itsu baino gehiago daude, Europako erreferentziak aintzat hartuta. Gehienak ezezagunak dira gizarte-, hezkuntza- eta osasun-zerbitzu eskudunentzat. Aurreko zerbitzuekin harremanetan daudenen artean, gehienak ez daude identifikatuta gor-itsu gisa, eta ez daude jasotzen zerbitzu egokiak.

## Sortzetiko gor-itsutasunaren deskribatzaileak

**Entzumen- eta ikusmen-urritasuna duten pertsonak, aldi berean, ondoko ezaugarrien arteko nahasketa ere aurkez dezakete:**

- Erantzunik eza soinuari eta/edo argiari begira.
- Ukimen-defentsa –ukimena saihestuta (haurrak, bereziki, txikiak).
- Arazoak ikusmen-harremanekin / gizartean parte hartzea adin goiztiarrarekin.
- Trebetasunak garatu eta orokortzeko moteltasuna (haurrak).
- Zereginak egiteko jarrera ezohikoa hartzea - gainerako entzumena eta ikusmena modu eszentrikoan erabilia (haurrak).
- Bere inguruko munduaren esangura ulertzeko zailtasuna.
- Garapenaren atzerapena.
- Komunikazio-metodo pertsonalen garapena.
- Jarrera errepikakorrek (estereotipia).
- Euren buruarekin edo besteekin jarrera oldarkorra izatea.
- Uzkurtasuna / isolamendua.
- Usaimena, dastamena edo ukimena informazioa eskuratzeko erabiltzea.

## Eskuratutako Gor-itsutasunaren deskribatzaileak

**Bizitzan berandu eskuratutako entzumen- eta ikusmen-urritasuna duten pertsonak, ondoko ezaugarrien arteko nahasketa ere aurkez dezakete:**

### Entzumena



- Erantzunik eza atzetik hitz egiten zaionean.
- Telebista / irratia / estereoa besteentzat beharrezkoa dena baino altuagoa jartzeko beharrezana.
- Pertsona edo azentu ezezaguna duten pertsonari jarraitzeko zailtasuna.
- Elkarrizketan hizlariaren aldaketak jarraitzeko zailtasuna.
- Berehalako ingurumeneko kanpo-zaraten kontzientziarik eza, adibidez, obrak eraikinean, pasabideko zarata, etab.
- Gizarte-elkarreraginetik kentzeko joera.
- Entzumen-desgaitasuna duten pertsonari laguntza teknikoak ematea (audifonoak, IC, bukle magnetikoak, FM, etab.).
- Mundu guztiak azkarregi mastekatu edo hitz egiten duela kezaketa.

### Ikusmena



- Argi gehigarriaren beharrezana.
- Besteen kokapen-aldaketen kontzientziarik eza.
- Tokiak ohiko lekutik kanpo aurkitzeko ezintasuna.
- Ukimenaren erabilera ezohikoa mugikortasuneko edo zereginen sostenguan.
- Argiaren mailan aldaketak eragindako zailtasunak.
- Zailtasunak edo mesfidantza ezagunak ez diren lekuetan edo argitasun gutxiko tokietan.
- Zailtasunak pertsona ezagunak ezagutzeko horiek aurkeztu arte.
- Zailtasunak telebistarekin eta egunkariekin.